



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilak 4

Vitoria-Gasteiz, 4 de abril de 2017

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

GARDENARA —INFORMAZIO PUBLIKO GARRANTZITSU GUZTIA BILTZEN DUEN EUSKO JAURLARITZAREN GARDENTASUN ATARIA— EGINDAKO BISITAK HIRUKOIZTU EGIN DIRA

- Gainera, erakunde publikoen esku dagoen informazioa eskuratzeko eskubide berria gauzatuz, herritarrek egindako informazio ofizialeko eskaeren kopurua bikoiztu egin da
- Gaur Gobernu Kontseiluak onartutako “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzko 2016ko balantze-txostenaren” datuak dira
- Eusko Jaurlaritzarentzako oso positiboa da Euskadik, 2016an ere, Transparencia Internacional España entitateak egindako ebaluazioan 100 puntutik 100 puntu atera izana. Horrela, gardentasunaren eta gobernu zuzenaren kulturaren aurrera egiteko konpromisoa berresten du Jaurlaritzak

Gaur egindako bileran, Gobernu Kontseiluak “2016ko Balantze-txostena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzkoa” txostena onartu du. Eusko Jaurlaritzak dokumentua bigarren urtez osatu du, 2015eko urtarrilaren 13an, informazio publikoaren sarbideari, publizitate aktiboari eta gardentasun nahiz gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokionez funtzionamendu-neurriak onartu zituenean hartutako konpromisoa betez.

www.euskadi.eus webgunean jada herritarrek eskuragarri duten dokumentuak nota altua ematen dio Eusko Jaurlaritzak egindako lanari, publizitate aktiboarekin, gardentasunarekin eta parte-hartzearekin, eta gobernantza onaren irizpide berriekin lotuta herritarren eskubide berrietan aurrera egiteko garaian. Izan ere, Transparencia Internacional España erakunde independenteak baloratutako autonomia-erkidegoen sailkapenean Eusko Jaurlaritzaren lidergoa azpimarratu da 2016ko balantzean: laz Euskadi, adierazleen ebaluazio kuantitatiboan, 100 puntutik 100 puntu berriro atera zituen autonomia-erkidego bakarra izan zen.

GARDENTASUNAREN ATARIA: GARDENA

2015. urtean, Eusko Jaurlaritzak **Gardena** sortu zuen, Euskal Administrazio Publikoaren gardentasunaren ataria. Herritarrek atari hau eskuragarri dute eguneko edozein ordutan, edozein lekutatik eta edozein gailuren bidez. Bertan on line eskuragarri dago herritarrentzako informazio publiko garrantzitsu oro. Gaur onartutako balantzearen arabera, 2016an bisitak hirukoiztu egin ziren: **% 192 hazi ziren**

GAIA	2016	2015
Gardena webgunea oro har	16.173	5.532
Gardentasunari buruzko eduki orokorrak	2385	850
Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	8359	1715
Autonomia-erkidegoari buruzko informazioa	1283	1422
Gardentasun ekonomikoa eta finantzarioa (urteko kontuak eta aurrekontuak, aurrekontua gauzatzea...)	954	729
Harremanak herritarrekin eta gizartearekin	659	593
Zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea (lizitazioak, kontratuak, hitzarmenak...)	582	584
Lurraldearen antolamendua, hirigintza eta herrilanak (lurralde-antolaketako plana, ingurumena babesteko eta baliabide naturalak antolatzeko planak, azpiegitura estrategikoetako obrak...)	162	198

INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA: ZUZENEAN

Era berean, 2016ko balantzean ikusi da 2015ean Eusko Jaurlaritzak ezarritako beste prozedura bat finkatzen ari dela: informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeari erantzutea. **Prozedura hori Zuzenean izeneko Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bitartez bideratzen da. 2016. urtean 67 eskaerari —2015ko eskaeren bikoitza baino gehiago— erantzun zitzaien:**

2016AN ERANTZUNDAKO INFORMAZIO ESKAERAK (Eusko Jaurlaritza)

EUSKO JAURLARITZA	2016KO ESKAERAK	2015EKO ESKAERAK
Informazio guztia eskuratzeko aukera	51 (% 76,1)	22 (% 73,3)
Erantzuteko daudenak (2016)	2 (% 2,9)	(-)
Onartu gabeak (*)	6 (% 8,9)	3 (% 10)
Desbideratuak edo Uko eginak	8 (% 11,9)	1 (% 3,3)
GUZTIRA	67 (% 100)	30 (% 100)

(*) 6 eskaera ez dira onartu: informazioa ez zutelako, informazio osagarria zelako edo errepikatutako eskaera zelako

2016AN ERANTZUNDAKO INFORMAZIO ESKAERAK (Sailen arabera)

SAILA	2016KO ESKAERAK	2015EKO ESKAERAK
Lehendakaritza	0	1
Administrazio Publikoa eta Justizia	16	6
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	3	7
Enplegua eta Gizarte Politikak	3	1
Ogasuna eta Finantzak	3	1
Hezkuntza, Hizkuntza Politikoa eta Kultura	5	2
Segurtasuna	2	2
Osasuna	17	4
Ingurumena eta Lurralde Politika	18	6
GUZTIRA	67	30

2016an, gainera, emandako erantzunarekin ados ez zeuden herritarren 9 erreklamazio egin ziren. Erreklamazio horiek *Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak* aztertzen ditu. Organo independente hau iaz jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak.

PUBLIZITATE AKTIBOA

Gainera, 2016an, Eusko Jaurlaritzak jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa eman zituen bere gardentasun-atarian herritarren esku jartzen zuen informazioari zegokionean. Hala, Gardenan honako gai hauen inguruko informazioa barne hartu, zabaldu eta hura eskuratzeko erraztasunak eman dira:

- ✓ **Kontratu txikiak:** 2016an Eusko Jaurlaritzako sail desberdinek egindako mota honetako 3.102 kontratu argitaratu ziren.
- ✓ **Emandako laguntzak eta diru-laguntzak:** webgunean diru-laguntza beraren onuradunak eta pertsona fisiko edo juridiko berari emandako diru-laguntzak bilatzeko aukera ematen duen aplikazio informatiko zehatz bat ezarri da. **Gainera, datu globalak hobeto ulertzeko, zenbait irudikatze grafiko egin dira.**
- ✓ **Erakundeen organigramak, funtzioak eta kargu publikoen katalogoko ibilbide profesionala:** gai honi buruzko informazioa, oso-osorik, komunikazio irekiko gidan argitaratzen da.
- ✓ **Lanpostu, bateragarritasunei buruzko ebazpen, ordainsari, kargua uztearen ondoriozko kalte-ordain eta abarri buruzko zerrenda:** enplegatuekin zein kargu publikoak betetzen dituzten pertsonekin lotuta, herritarren intereseko datu askoren argitalpena egunero eguneratzea automatizatu da.
- ✓ **Eusko Jaurlaritzako kideen bidaia-gastuak.**
- ✓ **Urteko eta hainbat urtetako planak eta programak, eta betetze-mailaren adierazleak eta emaitzak**
- ✓ **Gobernu Programaren jarraipena.**

- ✓ **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko erregulazioarekin, osaketarekin, aktarekin eta ebazpenekin** lotutako informazioa biltzeko webgunea eratu da.
- ✓ **Legegunea:** Euskadin aplikatzekoa den araudi guztia argitaratzen den ataria berregituratu eta zabaldu da.
- ✓ **Garrantzi juridikoko informazioa:** txostenak, ebazpenak, akordioak, jarraibideak, aginduak, lege-aurreproiektuak, etab.
- ✓ **Hitzarmenak eta kudeaketa-mandatuak:** 2015ean erregistratutako 113tatik 2016ko 382tara pasatu da.

Gainera, informazioa argitaratzeko modua kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak azpimarratu du 2016an egindako esfortzuak ondorengo alderdiak hobetzera bideratu direla:

- **Informazioaren osotasuna:** informazio mota bakoitzari buruz ahalik eta datu gehien argitaratzeko lan egin da, kalitate handienarekin eta jatorrizko iturrietara jotzen saiatuz.
- **Argitaratzeko lekua:** informazioaren eguneratze hobea bermatzeko, informazio bakoitza berau sortu duen webgunean argitaratu da eta sarrera orokorreko beste puntu batzuetatik partekatu da.
- **Aurkezpena:** euskadi.eus-eko homeek Gardena atalera sarrera asko, sinpleak eta ikusteko errazak dituzte, atari publiko guztietatik informazio garrantzitsua eskuratzea errazteko.
- **Argitaratze zuzena eta zeharkakoa:** argitaratze zuzenak (dokumentuak, taulak...) eta zeharkako sarbideak (bilatzaileak) bateratu dira, erabiltzaileek informazioa modu errazenean bila dezaten.
- **Egitura:** informazio bateratua eskuratzen laguntzeko egitura logiko bat erabili da.
- **Eskuragarritasuna:** azken hilabeteetan Gardena ataritik hasi eta, gehienez, 5 klik eginez, nahi ditugun datuetara edo dokumentuetara iristen saiatu gara.
- **Argitasuna:** Eusko Jaurlaritzak gai honetan aurre egin behar izan dion erronka handiena izan da. Informazioa argi eta ulertzeko moduan argitaratu ahal izateko, testuetan azalpen-iruzkinak, irudiak edo grafikoak erabili dira.
- **Berrerabiltzea:** Datu gehienak berriro erabiltzeko formatutan eskaintzeaz gain, 2016an, Eusko Jaurlaritzaren Open Data Euskadi atariak eskaintzen dituen dataseten katalogoa asko zabaldu zen.
- **Eguneratzea:** esparru honetan egindako lanaren helburu izan da, argitaratutako informazioarekin batera, argitaratutako datuen azken eguneratzearen data ezartzea. Eta gaur egun Eusko Jaurlaritza jada badagoen informazioa berehala eskuratzetik hurbil dago.

DATUAK FORMATU IREKIAN ETA BERRIRO ERABILTZEKO MODUAN: OPEN DATA EUSKADI

Era berean, Eusko Jaurlaritzari positiboa iruditu zaio Open Data Euskadi atari ofizialean, formatu ireki eta berrerabilgarrian, datuak eskura jartzeak izandako

bilakaera. 2016an aurreko urtean baino 171 *dataset* gehiago argitaratu ziren. Kopuru horri esker, Eusko Jaurlaritza berriro buruan jarri da Estatuko www.datos.gob.es webgunean *dataset* gehien argitaratzen dituen datuen iturriari dagokionean.

2016an Eusko Jaurlaritzak abian jarritako bi proiektu azpimarratzea ere garrantzitsua da:

- ✓ *Open Data Euskadiren* datuen katalogoan **beste euskal administrazio publikoen datuak federatzeko** proiektua.
- ✓ www.euskadi.eus helbideko webguneetako informazioaren zati handi bat **elkarri lotutako datu** moduan eskaintzeko ekimen aitzindaria.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKADIKO UDALEKIN HARREMANEAN HERRITARREI IZAPIDEAK AURREZTUKO DIZKIEN HITZARMENA EGUNERATU DU EUSKO JAURLARITZAK

- Hitzarmen honen bitartez, erakundeen arteko informazioa, datuak eta on line zerbitzuak trukatzeko plataforma bat hauen esku jartzen da, jada beste administrazio publiko batzuen esku dauden dokumentuak eta ziurtagiriak herritarrek berriro aurkeztu beharrik ez izateko
- Sistema honen bidez, trukaturako informazioaren egiazkotasuneko, osotasuneko, konfidentziasuneko, eskuragarritasuneko eta kontserbazioko baldintzak ziurtatzen dira
- 2017an, Eusko Jaurlaritzak 37 milioi euro baino gehiago inbertituko ditu bere administrazio elektronikoan, eta Euskadin informatikako eta telekomunikaziotako zerbitzuak eskaintzen

Gobernu Kontseiluak, gaur, Euskadiko toki-erakundeekin lankidetzahitzarmeneko eredia aldatzea onartu du, elkarri informazioko, administrazioko eta kudeaketa elektronikoko zerbitzu eskaintzeko. Aldaketa horri esker, Euskadiko erakundeen arteko on line erlazioa hobetuko da, administrazio publikoekin herritarrek egin behar dituzten izapideak erraztea duen azken helburuarekin.

Hitzarmen berri honen bitartez, hauxe sinatzen duten euskal udalek sistema elkarreragile berria edukiko dute (informazioa, datuak, zerbitzu elektronikoak, etab.), besteak beste, paperean dauden ziurtagiriak eta egiaztatze dokumentuak datuen transmisio elektronikoengatik ordezkatzeko.

Sistema honen bidez, trukaturako informazioaren egiazkotasuneko, osotasuneko, konfidentziasuneko, eskuragarritasuneko eta kontserbazioko baldintzak ziurtatzen dira, eta herritarrentzako izugarrizko aurrerapausoa da herri-administrazioekin duten erlazioan. Izan ere, sistema honi esker, jada beste erakunde baten esku dauden izapideak egiteko datuen ziurtagiriak eta dokumentuak eskatu beharrik ez dago.

E- EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

2017an Eusko Jaurlaritzak 6,1 milioi euroko aurrekontua egin du, Euskal Administrazio Publiko Elektronikoan aurrera egiteko. Kontusail hau Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren garrantzitsuena da, Euskadiko informatikako eta telekomunikaziotako zerbitzutan sail honek inbertituko dituen 31 milioi euroekin batera: konfiantzako zerbitzu elektronikoak, sinadura digitala, lizentziak, proba pilotuen laborategi teknologikoak, bideokonferentzia-ekipoak, terminalak, aplikazioak, sistemak, proiektuak, informatikako segurtasuna, zaintza teknologikoa, software askeko bulegoa, informatikako zerbitzuen

erabiltzaileei arreta, datu meteorologikoen transmisioa, TETRA sarea, KZGUNEAK, etab.

HERRITARRENTZAKO ONURAK

- **Herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzen du:** Administrazioen arteko lankidetzaren ondorioz.
- **Administrazioen sistemen artean informazioak trukitzea.** Asmoa da herritarrak ez daitezela ibili erakunde batetik bestera, batek jaulkitako agiriak bestean aurkeztu behar dituztelako edo erakunde bat baino gehiagoren aurrean eskaerak nahiz idatziak izapidetu behar dituztelako.
- **Izapideak eta prozedura administratiboak sinplifikatzea.** Administrazioekin izapideak egiteko edo ziurtagiriak eskatzeko aurkeztu beharreko agiri-kopurua murrizten da.
- **Gardentasuna eta erraztasuna:** Herritarrek ez dute jakin beharko administrazioek eskainitako zerbitzuen atzean dagoen barruko tramitazioa; izan ere, orain arte, batzuetan ezinbestekoa zen hori ezagutzea zenbait izapide egiteko.

ADMINISTRAZIOENTZAKO ONURAK

- **Eraginkortasuna hobetzea:** Jardunbide administratiboaren eraginkortasuna areagotuko da lankidetzaren eta kooperazioaren bidez.
- **Kostuak eta espazioak aurreztea:** Paperaren ordez agiri elektronikoak erabilia, paperezko agiriak jaulkitzeak eragindako kostuak murriztuko dira, baita agiriok biltegitratzeko behar den espazioa ere, eta ingurumena zainduko dugu.
- **Lan-zama arintzea:** Truke elektronikoaren bidez datu-zama arintzen da hartzailearen kudeaketa-sistemetan.
- **Informazioaren kalitatea hobetzea:** Hartzaileen kudeaketa-sistemen informazio-zaman gerta daitezkeen akatsak ezabatzen ditu, zama hori bera automatizatu egin baitaiteke.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

NERBIOI ITSASADARRAREN EZKERRALDEAN ETA OIARTZUALDEAN ENPLEGUA SORTZEKO INBERTSIO PRODUKTIBOA EGINGO DUTEN ENPRESENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMA FINANTZATZEKO 6.000.000 €

Eusko Jaurlaritzak 6.000.000 euro bideratuko ditu Nerbioi itsasadarraren ezkerrekoa eta Oiarzualdea indartzeko eta bertan enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egingo duten enpresentzako INDARTU laguntza-programara, 2017ko ekitaldirako.

Industrializazio Planaren arabera, enplegua sortzeko inbertsio produktiboa sustatzea izango da Jaurlaritzaren jarduna zuzendu behar duten funtsezko ardatz estrategikoetako bat, eta INDARTU programa bat dator jardun horrekin.

Beharrezkotzat jo zen zona horiek indartzeko eta bertan enplegua sortzeko inbertsio produktiboa egiten duten enpresentzako laguntza-programa garatzea, betiere lurralde-mailako diskriminazio positiboko ahalegina eginda. Ahalegin hori langabezia-egoera larriagoa duten zonetara zuzenduko da —krisialdi ekonomikoak eragin handiagoa izatearen ondoriozko langabezia-egoera izan zein inguru horren garapena eragozten duen egitura-narriadura izatearen ondoriozko langabezia-egoera izan—.

Enpleguaren sorrera da Programa horren funtsezko faktorea. Muga egokiak ezarri beharko dira enpleguan eragina izango duten eta industria-ehun trinkoa sortzeko lagungarriak izango diren inbertsioak bildu ahal izateko. Kontuan izan behar da industria-ehun trinkoa izateak etorkizunean aberastasuna eta enplegua sor dezakeela. Horrenbestez, enplegua sortzen duen inbertsioak bolumen minimo batzuk behar ditu, ondorio adierazgarriak bermatuko badira.

Laguntzak, halaber, itzuli beharrik gabeko diru-laguntza modura egituratzen dira, eta aurreko eskakizunekin batera, aukera ematen dute finantza-egitura osasuntsuak dituzten enpresak izateko, inbertsioak finkatu aurreko urteak jasateko gauza izango direnak.

Agindu horren barruan emango diren diru-laguntzak, beraz, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira, eta lagun daitekeen inbertsioaren % 10 izango dira.

Diru-laguntzek muga maximoa izango dute, eta ezin izango dira, inola ere, enpresako 3.000.000 eurotik gorakoak izan.

Enpresa handiek 3 M€-ko inbertsio onartua egin beharko dute, eta gutxienez 20 enplegu garbi sortu beharko dute. Enpresa txikiek eta ertainek 750.000,00€-ko inbertsio onartua egin beharko dute, eta gutxienez 5 enplegu garbi sortu beharko dute. Era berean, aurrez adierazitako gutxieneko inbertsio onartuetara iristen ez diren enpresetako inbertsioak hartuko dira aintzat, baldin eta enpresa handien kasuan gutxienez 100 enplegu sortzen badute, eta enpresa txikien eta ertainen kasuan gutxienez 25 enplegu garbi sortzen badute.

gainerako kudeaketak bitarteko elektroniko bidez egingo dira, Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskaerak eta erantzukizunpeko adierazpenak bitarteko elektroniko bidez tramitzeko moduari buruzko zehaztapenak eta egindako inbertsioen justifikazioen zehaztapenak Interneteko helbide honetan osatuko dira: www.euskadi.eus. Eskaeraren, erantzukizunpeko adierazpenaren eta justifikazioaren eredu normalizatuak ere helbide horretan daude.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

ETS EUSKAL TRENBIDE SAREARI AGINDU ZAIO GASTEIZKO TRANBIAREN HEGOALDEKO LINEA LUZATZEA, ANGULEMA-UNIBERTSITATEA ETA ANGULEMA-SALBURUA TARTEETAN

Gobernu Kontseiluak gaur onartutako akordioaren bidez, ETS - Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari agindu zaio, Angulema-Unibertsitatea eta Angulema-Salburua tartetan, Vitoria-Gasteizko tranbiaren linea luzatzeko obren proiektua idaztea eta burutzea, zuzentzea eta ikuskatzea. Gaur onartutako erabakia beharrezko izapidea da. Horren bidez, aipatutako luzatze-lanak gauzatzeko eta finantzatzeko, erakunde publiko horren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetzak-hitzarmenean ezartzen diren baldintzak bermatzen dira.

ETSk Vitoria-Gasteizko tranbiaren luzapenaren informazio azterlana esleitu du 172.500 euroren truke

Bide batez, Arantxa Tapia sailburuak, informatu du Euskal Trenbide Sareak aste honetan esleitu duela Vitoria-Gasteizko tranbiaren luzapenaren informazio azterlana Idom ingeniaritza etxeari, 172.500 euroren truke. Esleipena lortu duen enpresak urtebeteko epea du proiektua aurkezteko. Metro arina hiriko mendebaldeko auzo horretara luzatzeak, dauden hiri garapenei eta eskariari erantzuten die.

Tranbiarako aztertu behar den luzapena, erdigunearen inguruan egungo plataformarekin trenbide bikoitzeko lotura ezartzean eta Zabalzana ingururantz luzatzean eta ibilbidea hirian ezartzean oinarrituko da, tranbiaren trazatuak eta geralekuek une honetan dagoen hiri egituran izan behar duten integrazioa kontuan izanda, hiriko trafikoan ahalik eta eragin gutxien izateko.

Azterlanak geraleku intermodala eta egungo trazatuarekin izan beharreko lotura hiri integrazioaren ikuspuntutik aztertu beharko ditu. Txosten horren barruan egungo dira, baita ere, eragina jasoko duten hiriko elementuen birkokapena (autobus eta taxi geralekuak, zamalanetarako guneak, aparkalekuak, edukiontziak...), oinezkoen ibilbideen azterketa, trafiko errodatuaren desbideraketak eta egokitzapenak, jarduketaren faseetan.

Beste alde batetik, martxan jarriko den zerbitzu berriaren ondorioz, gaur egun dagoen energia azpiegitura ez da nahikoa izango, eskatuko diren potentziei zein linean egon daitezkeen tentsio erorketei dagokienez. Energiari buruzko azterketa horrek beste azpi-estazio baten beharra ote dagoen zehaztu eta justifikatu beharko du. Horrela bada, eta lanen barruan, haren kokapena erabaki beharko da eta zein ezaugarri izan behar dituen definitu, hirigunean izan beharreko integrazioa zainduz.

Informazio azterlanaren aurretik, esleipendunak alternatiben azterlana egingo du. Bertan, hainbat trazatu soluzio aztertuko dira, eta, horrez gain, baita egungo trazatuarekin lotzeko dauden aukerak, loturako geraleku intermodalaren aurre-diseinu arkitektonikoa eta tranbiaren irudia bera definitzen duten markesinen eta elementu auxiliarren diseinua ere.

Azterketak geralekuen kokalekua eta eskema funtzionala jasoko ditu. Horrez gain, trazatu berriak zerbitzua izatearen ondorioz tranbia flotari erantzun ahal izateko beharrezkoak izango diren kotxetegiak eta tailerren dimentsionamendua ere aurreikusi beharko du.

Hezkuntza

71.670 EURO ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASKUNTZA PROFESIONALETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bilkuran agindu bat onartu du. Agindu horien bidez, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntza profesionalak eskaintzeko baimendurik dauden ikastetxe pribatuei diru-laguntzak emateko deia egiten da.

Agindu honek, 71.670 euroko zenbateko globala hartzen duena, aipaturiko ikastetxeen langile-kostuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematea du helburu, betiere, 2016-2017 ikasturtean diru-laguntzarik ez badute jaso Hezkuntza Saitetik.

Egun, titulartasun pribatuko hiru ikastetxek eskaintzen dituzte Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntza profesionalak Euskadin, honako eremu hauetako titulazioekin: argazkigintza, grafiko-publizitarioa, ilustrazioa, animazioa, dekorazio-lanen proiektuak eta zuzendaritza.

Gobernanza Pública y Autogobierno

SE TRIPLICA EL NÚMERO DE VISITAS A GARDENA, EL PORTAL DE TRANSPARENCIA DEL GOBIERNO VASCO EN EL QUE SE CUELGA TODA LA INFORMACIÓN PÚBLICA RELEVANTE

- Se duplica, además, el número de solicitudes de información oficial de la ciudadanía que ejerce su nuevo derecho de acceso a la información que obra en poder de las instituciones públicas
- Son datos del “Balance 2016 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su sector público”, aprobado hoy por el Consejo de Gobierno
- El Gobierno Vasco valora muy positivamente que Euskadi haya sido la única autonomía que en 2016 volvió a obtener un 100 sobre 100 en la evaluación de Transparencia Internacional España, y renueva su compromiso con avanzar en la cultura de la transparencia y el buen gobierno

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde, en su reunión de hoy, al “Balance 2016 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su sector público”. Es el segundo año que el Gobierno Vasco elabora este documento, dando así cumplimiento al compromiso adquirido el 13 de enero de 2015, cuando aprobó el conjunto de medidas de funcionamiento en materia de acceso a la información pública, publicidad activa y el avance de la cultura de la transparencia y el buen gobierno.

El documento, que se encuentra ya a disposición de la ciudadanía en la página web www.euskadi.eus, otorga una elevada nota al trabajo del Gobierno Vasco para avanzar en los nuevos derechos ciudadanos relacionados con la publicidad activa, transparencia y participación, así como en los nuevos criterios de la buena gobernanza. De hecho, el balance 2016, destaca la posición de liderazgo del Gobierno Vasco en el ranking de comunidades autónomas valoradas por la entidad independiente, Transparencia Internacional España: Euskadi fue la única autonomía que el año pasado, volvió a obtener un 100 sobre 100 en la evaluación cuantitativa de indicadores.

PORTAL DE TRANSPARENCIA: GARDENA

El Gobierno Vasco creó en 2015, **Gardena**, el portal de transparencia de la Administración Pública Vasca, accesible a la ciudadanía a cualquier hora, desde cualquier lugar y con cualquier dispositivo. En él está disponible online toda la información pública relevante para la ciudadanía. Según el balance aprobado hoy, las visitas en 2016 se triplicaron: crecieron un 192%

TEMÁTICA	2016	2015
Web de Gardena en global	16.173	5.532
Contenidos generales sobre la transparencia	2385	850
Derecho de acceso a la información pública	8359	1715
Información sobre la comunidad autónoma	1283	1422
Transparencia económico financiera (cuentas y presupuestos anuales, ejecución del presupuesto...)	954	729
Relaciones con la ciudadanía y la sociedad	659	593
Contratación de servicios y suministros (licitaciones, contratos, convenios...)	582	584
Ordenación del territorio, urbanismo y obras públicas (plan ordenación territorial, planes de protección medio ambiental y ordenación de recursos naturales, obras de infraestructuras estratégicas...)	162	198

DERECHO DE ACCESO A INFORMACIÓN PÚBLICA: ZUZENEAN

Igualmente, el balance 2016 observa que se está consolidando otro procedimiento implantado por el Gobierno Vasco en 2015: la respuesta al ejercicio del derecho de acceso a la información pública. Este procedimiento, se vehiculiza a través del Servicio de Atención Ciudadana, Zuzenean, y en 2016, atendió **67 solicitudes, más del doble que en 2015:**

SOLICITUDES DE INFORMACIÓN RESUELTAS EN 2016 (Gobierno Vasco)

GOBIERNO VASCO	SOLICITUDES 2016	SOLICITUDES 2015
Acceso total a la información	51 (76,1%)	22 (73,3%)
Pendientes de resolución (2016)	2 (2,9%)	(-)
Inadmitidas (*)	6 (8,9%)	3 (10%)
Derivadas o Desistidas	8 (11,9%)	1 (3,3%)
TOTAL	67 (100%)	30 (100%)

(*) No se han admitido 6 solicitudes: por no poseer la información, por tratarse de información auxiliar o por ser una solicitud repetitiva

SOLICITUDES DE INFORMACIÓN RESUELTAS EN2016 (Por Departamentos)

DEPARTAMENTO	SOLICITUDES 2016	SOLICITUDES 2015
Lehendakaritza	0	1
Administración Pública y Justicia	16	6
Desarrollo Económico y Competitividad	3	7
Empleo y Políticas Sociales	3	1
Hacienda y Finanzas	3	1
Educación, Política lingüística y cultura	5	2
Seguridad	2	2
Salud	17	4
Medio Ambiente y Política Territorial	18	6
TOTAL	67	30

En 2016, se contabilizaron, además, 9 reclamaciones ciudadanas por insatisfacción en la respuesta dada, reclamaciones que atiende la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública, un órgano independiente puesto en marcha por el Gobierno Vasco el año pasado.

PUBLICIDAD ACTIVA

Además, en 2016, el Gobierno Vasco dio un salto cuantitativo y cualitativo en la información que pone a disposición de la ciudadanía en su portal de transparencia. Así, se ha incluido, ampliado y facilitado el acceso en Gardena a información sobre:

- ✓ **Contratos de importe menor:** en 2016 se publicaron 3.102 contratos de este tipo realizados por los diferentes departamentos del Gobierno Vasco.
- ✓ **Subvenciones y ayudas concedidas:** se ha incluido en la web una aplicación informática específica que posibilita buscar a los beneficiarios de una misma subvención, y las subvenciones concedidas a una misma persona física o jurídica. Además, una mejor comprensión de los datos globales, se han elaborado diferentes visualizaciones gráficas.
- ✓ **Funciones, organigramas de las entidades, y trayectoria profesional del catálogo de cargos públicos:** la información relativa a este tema se publica, de manera integrada, en la guía de la comunicación abierta.
- ✓ **Relaciones de puestos de trabajo, resoluciones de compatibilidad, retribuciones, indemnizaciones por abandono de cargo, etc.:** se ha automatizado la actualización diaria de la publicación de muchos datos de interés ciudadano, relacionados tanto con las personas empleadas como con las personas que ocupan cargos públicos.
- ✓ **Gastos de viaje de las y los miembros del Gobierno Vasco.**

- ✓ **Planes y programas anuales y plurianuales e indicadores de grado de cumplimiento y resultados**
- ✓ **Seguimiento del Programa de Gobierno.**
- ✓ Se ha creado el sitio web para albergar la información en relación **con la regulación, composición, acta y resoluciones de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública.**
- ✓ **Legegunea:** se ha reconvertido y ampliado el portal en el que se publica toda la normativa que resulte de aplicación en Euskadi.
- ✓ **Información de relevancia jurídica:** informes, resoluciones, acuerdos, directrices, instrucciones, anteproyectos de ley, etc.
- ✓ **Convenios y encomiendas de gestión:** se ha pasado de 113 registros en 2015, a 382 en 2016.

Teniendo en cuenta, además, el modo de publicar la información, el Gobierno Vasco destaca que los esfuerzos realizados en 2016, se han dirigido a mejorar:

- **La integridad de la información:** se ha trabajado para publicar el máximo de datos sobre cada tipo de información, con la máxima calidad y procurando acudir a las fuentes originales.
- **El lugar de publicación:** para garantizar una mejor actualización de la información, esta se ha publicado en los sitios web donde se genera y, se ha compartido desde otros puntos de acceso general.
- **La presentación:** las homes de euskadi.eus tienen múltiples, sencillos y visibles accesos a Gardena para facilitar el acceso a la información relevante desde todos los portales públicos.
- **La publicación directa e indirecta:** se han combinado publicaciones directas (documentos, tablas...) con accesos indirectos (buscadores) para que las personas usuarias puedan buscar la información de la manera más sencilla.
- **La estructura:** se ha utilizado una estructura lógica para facilitar el acceso a una información integrada.
- **La accesibilidad:** en los últimos meses se ha trabajado por conseguir que con apenas un máximo de 5 clicks desde Gardena, se pueda llegar a los datos o documentos requeridos.
- **La claridad:** ha sido el mayor reto al que se ha enfrentado el Gobierno Vasco en esta materia. Para hacer posible la publicación de la información de manera clara y entendible, se han utilizado gráficos, imágenes o comentarios aclaratorios en los textos.
- **La reutilización:** además de ofrecer la mayor parte de los datos en formatos reutilizables, en 2016, se incrementó notablemente el catálogo de datasets que ofrece el portal del Gobierno Vasco, Open Data Euskadi.
- **La actualización:** el objetivo del trabajo realizado en este ámbito ha sido el de consignar junto con la información publicada, la fecha última de actualización de los datos publicados. Y en la actualidad el Gobierno Vasco está cerca del acceso inmediato a la información ya existente.

DATOS EN FORMATO ABIERTO Y REUTILIZABLE: OPEN DATA EUSKADI

Igualmente, el Gobierno Vasco valora positivamente la evolución en puesta a disposición de datos, en formato abierto y reutilizable, en su portal oficial Open Data Euskadi. En 2016, se publicaron 171 datasets más que el año anterior, cifra que ha colocado, de nuevo, al Gobierno Vasco, a la cabeza del Estado en la fuente de datos que más datasets publica en la web estatal, www.datos.gob.es

También es importante destacar dos proyectos puestos en marcha por el Gobierno Vasco en 2016:

- ✓ El proyecto para **federar datos de otras administraciones públicas vascas** en el catálogo de datos de Open Data Euskadi.
- ✓ La iniciativa pionera para ofrecer gran parte de la información de los sitios web de www.euskadi.eus, también, en forma de **datos enlazados**.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO ACTUALIZA EL CONVENIO QUE PERMITIRÁ A LA CIUDADANÍA AHORRAR TRÁMITES EN SU RELACIÓN CON LOS AYUNTAMIENTOS DE EUSKADI

- El convenio pone a disposición de las entidades una plataforma de intercambio de información, datos y servicios online entre instituciones, para evitar a la ciudadanía presentar documentos y certificaciones que ya obren en poder de otras administraciones públicas
- El sistema asegura las condiciones de autenticidad, integridad, confidencialidad, disponibilidad y conservación de la información intercambiada
- En 2017, el Gobierno Vasco invertirá más de 37 millones de euros en su administración electrónica y la prestación de servicios informáticos y de telecomunicaciones en Euskadi

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la modificación del modelo de convenio de colaboración con las entidades locales de Euskadi para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica. Es una modificación que permitirá mejorar la relación en línea entre las instituciones vascas, con el objetivo último de simplificar los trámites que debe realizar la ciudadanía en su relación ordinaria con las administraciones públicas.

Este nuevo convenio, pone a disposición de los ayuntamientos vascos que lo firmen, un nuevo sistema de interoperabilidad (intercambio de información, datos, servicios electrónicos, etc.) que permite, entre otras cosas, sustituir las certificaciones y los documentos acreditativos en papel, por transmisiones electrónicas de datos.

El sistema asegura las condiciones de autenticidad, integridad, confidencialidad, disponibilidad y conservación de la información intercambiada, y supone un gran avance para la ciudadanía en su relación con las administraciones públicas, en la medida que evita solicitar documentos y certificaciones de datos para realizar trámites que ya obran en poder de otra institución.

E-ADMINISTRACIÓN PÚBLICA VASCA

En 2017, el Gobierno Vasco ha presupuestado 6,1 millones de euros para avanzar en la Administración Pública Vasca Electrónica. Esta partida es la más importante del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, junto con los 31 millones de euros que invertirá este departamento en servicios de informática y telecomunicaciones de Euskadi: servicios electrónicos de

confianza, firma digital, licencias, laboratorios tecnológicos de pruebas piloto, equipos de videoconferencias, terminales, aplicaciones, sistemas, proyectos, seguridad informática, vigilancia tecnológica, oficina de software libre, atención a las personas usuarias de servicios informáticos, transmisión de datos meteorológicos, red TETRA, KZGUNEAs, etc.

BENEFICIOS PARA LA CIUDADANÍA

- **Mejora el servicio a la ciudadanía:** Derivado de la colaboración entre las Administraciones.
- **Intercambio de informaciones entre sistemas de las Administraciones.** Se pretende conseguir que ciudadanos y ciudadanas no tengan que deambular entre distintos organismos, bien sea porque tengan que aportar documentos emitidos por uno para presentar en otro, o bien sea simplemente porque tienen que tramitar solicitudes y escritos en Administraciones distintas.
- **Simplificación de los trámites y procedimientos administrativos.** Se reduce la documentación a aportar para trámites con las Administraciones o la solicitud de certificados.
- **Transparencia y sencillez:** La ciudadanía no necesitará conocer la tramitación interna que está detrás de los servicios que prestan las Administraciones, algo, que hasta ahora, en ocasiones, era necesario a la hora de hacer ciertas tramitaciones

BENEFICIOS PARA LAS ADMINISTRACIONES

- **Mejora de la eficiencia:** Aumenta la eficiencia de la actuación administrativa a través de la colaboración y cooperación.
- **Ahorro de costes y espacios:** El uso de documentos electrónicos en lugar del papel, permitirá reducir los costes generados de la emisión de los documentos en papel, así como del espacio destinado al almacenamiento de los mismos; contribuyendo además al cuidado de medio ambiente.
- **Reducción de la carga de trabajo:** En caso de disponer de un intercambio electrónico, se agiliza la carga de datos en los sistemas de gestión receptores.
- **Mejora de la calidad de la información:** Elimina posibles errores en la carga de información en los sistemas de gestión receptores, ya que dicha carga podrá automatizarse.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

6.000.000 € PARA FINANCIAR EL PROGRAMA DE AYUDAS A EMPRESAS QUE REALICEN INVERSIÓN PRODUCTIVA GENERADORA DE EMPLEO EN LAS ZONAS MARGEN IZQUIERDA, RÍA DEL NERVIÓN Y OIARTZUALDEA

El Gobierno Vasco destinará 6.000.000 de euros al Programa de ayudas a empresas que realicen inversión productiva generadora de empleo para impulso de las Zonas Margen Izquierda, Ría del Nervión y Oiartzualdea, Programa INDARTU, para el ejercicio 2017.

El Plan de Industrialización considera la promoción de inversión productiva generadora de empleo uno de los ejes estratégicos fundamentales que deben orientar la actuación del Gobierno, y el programa INDARTU, se encuentra en consonancia con dicha actuación.

Se consideró necesario desarrollar los términos del programa de ayudas a empresas que realicen inversión productiva generadora de empleo para impulso de estas zonas, con el objeto de establecer un esfuerzo de discriminación positiva de contenido territorial, dirigido hacia determinadas zonas que sufren con mayor gravedad la situación de desempleo, bien porque el efecto de la crisis económica les ha afectado más intensamente o bien porque existe una situación de deterioro estructural que dificulta su desarrollo

La creación de empleo constituye un factor esencial en este Programa. Se entiende que es necesario establecer los límites adecuados para que puedan tener cabida inversiones en las que se dé una incidencia en cuanto al empleo y contribuyan a crear un denso tejido industrial, potencial generador de mayor riqueza y empleo en el futuro. En consecuencia, la inversión generadora de empleo requerirá de unos volúmenes mínimos que garanticen un efecto inducido significativo.

Las ayudas, asimismo, se estructuran bajo la forma de subvención no reintegrable, lo que conjuntamente con las exigencias anteriores permite configurar empresas con estructuras financieras saneadas y capaces de soportar los años previos a la consolidación de las inversiones.

Las subvenciones a conceder en el marco de la presente Orden adoptarán la forma de subvención no reintegrable y supondrán el 10 % de la inversión susceptible de apoyo.

Las subvenciones tendrán un límite máximo que, en ningún caso, podrá superar la cantidad de 3.000.000 de euros por empresa.

Las grandes empresas, deberán realizar una inversión admitida mínima de 3 M€ y alcanzar una generación mínima de 20 empleos netos; las PYMES, deberán realizar una inversión admitida mínima de 750.000,00€ y alcanzar una generación mínima de 5 empleos netos. También se considerarán las inversiones de las empresas que, aunque no alcancen los mínimos de

inversión admitida indicada con anterioridad, generen un mínimo de 100 empleos, en el caso de grandes empresas, y un mínimo de 25 empleos netos, en el caso de Pymes.

Las solicitudes, requerimientos, notificaciones y demás gestiones implicadas en esta convocatoria de concesión de ayudas se efectuarán por medios electrónicos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las especificaciones de cómo tramitar, por el canal electrónico, las solicitudes, declaraciones responsables y de justificación de las inversiones realizadas, se cumplimentarán en la dirección de Internet www.euskadi.eus. También el modelo normalizado de solicitud, de declaración responsable y los de justificación.

Se podrán presentar solicitudes desde final de abril a mediados de junio.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

ENCOMIENDA A ETS DE LA AMPLIACIÓN SUR DEL TRANVÍA DE GASTEIZ EN EL TRAMO ANGULEMA-UNIVERSIDAD Y ANGULEMA-SALBURUA

El acuerdo aprobado hoy por el Consejo de Gobierno encomienda a la Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, ETS, la redacción del proyecto y la ejecución, dirección e inspección de las obras de la construcción de la ampliación del tranvía de Vitoria-Gasteiz, en el tramo Angulema-Universidad y Angulema-Salburua. La resolución aprobada hoy es el trámite necesario que avala los términos que se establezcan en los convenios de colaboración a suscribir entre el citado Ente Público, la Diputación Foral de Araba y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para la ejecución y financiación de la ampliación descrita.

ETS adjudica el estudio informativo de la ampliación del Tranvía de Vitoria-Gasteiz a Zabalzana por 172.500 euros

Asimismo, la consejera Arantxa Tapia ha informado al Consejo de Gobierno, de la adjudicación por parte de Euskal Trenbide Sarea del estudio informativo de la ampliación del tranvía de Vitoria-Gasteiz a Zabalzana a la ingeniería Idom por un importe de 172.500 euros. La compañía adjudicataria tiene un plazo de un año para presentar el proyecto. La prolongación del metro ligero a este barrio del oeste de la ciudad responde a los desarrollos urbanos y demanda existentes.

La ampliación a analizar para el tranvía consiste en la conexión en doble vía con la plataforma actual en el entorno de la zona centro, y de su continuidad e implantación en la ciudad durante su recorrido hasta la zona de Zabalzana, teniendo en cuenta la integración de la traza tranviaria y de paradas en el entramado urbano existente minimizando la afección al tráfico urbano.

El estudio deberá analizar la parada intermodo y de conexión con el trazado actual desde el punto de vista de la integración urbana. También forman parte de este informe la reubicación de los elementos urbanos afectados (paradas de autobuses y taxis, zonas de carga y descarga, aparcamientos, contenedores...), análisis de itinerarios y recorridos peatonales, desvíos y ajustes del tráfico rodado en las diferentes fases de actuación.

Por otro lado, el nuevo servicio a disponer hará insuficiente la infraestructura energética actual, tanto en lo que respecta a potencias demandadas como a caídas de tensión en la línea. Este estudio energético deberá determinar y justificar la necesidad de una subestación adicional. En tal caso y dentro de los trabajos, se deberá resolver su ubicación y definir sus características cuidando la integración en el entorno urbano.

Previamente al estudio informativo, el adjudicatario realizará un estudio de alternativas en el que se estudiarán diversas soluciones de trazado en las que se analizarán diferentes posibilidades de conexión con la situación actual, el prediseño arquitectónico de la parada intermodo de conexión, así como de las marquesinas y elementos auxiliares que definen la propia imagen del tranvía.

El análisis incluirá la situación de las paradas y de su esquema funcional. Asimismo, contemplará el dimensionamiento de las cocheras y talleres necesarios para el mantenimiento de la flota de tranvías resultante de servir el nuevo trazado.

Educación

71.670 EUROS PARA LAS ENSEÑANZAS PROFESIONALES DE ARTES PLÁSTICAS Y DISEÑO

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, ha aprobado la orden por la que se convocan subvenciones a los Centros autorizados de Enseñanzas profesionales de Artes Plásticas y Diseño, de titularidad privada.

El objeto de esta convocatoria, por un importe global de 71.670 euros, es la concesión de ayudas económicas, con el fin de contribuir a financiar los gastos de personal en los citados centros, que durante el curso 2016-2017 no hayan recibido otras subvenciones del Departamento de Educación.

Actualmente tres centros de titularidad privada ofrecen en Euskadi Enseñanzas profesionales de Artes Plásticas y Diseño, impartiendo titulaciones en áreas como la fotografía, gráfica-publicitaria, ilustración, animación o proyectos y dirección de obras de decoración.